



Sorabilla berriro jaietan murgilduta ikustearen poza

Gazteek hartu dute antolaketaren ardura eta ederra izan da asteburua: auzotar eta herrikide ugari hurbildu da jaietara / 8-9

Xoxokako Eskola, gogoan

Garai ezberdinetan, Xoxokako Eskolatik igarotako lau auzotar bildu ditu Aiurrik / 4-6

Sanmielak, Urnietan:
talka sortu da
Txosna Batzordearen
eta Udal arduradunen
arteak / 7

Bastero Kulturguneko
zinema emankizunak,
asteburu honetan
hasita: "Pitufos"
eta "Sin cobertura" / 14

IRAILAK 6
LARUNBATA-16:30

GALARRETA
JAI ALAI





EL BURUZ BURUKO
ESKOLAZEL
TRANSMISIOA



LEHEN PARTIDA (ORIAMENDI ERREMONTE TXAPELKETA)
AIESTARAN VII · MARTIRENA VS
JABALERA · ESKUDERO

2. PARTIDA (BURUZ BURUKO, 30 TANTORA)
BARRENETXEA IV VS
AZPIROZ

3. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)
GOIKOETXEA V · JUANENEA VS
ALDABE · ZUBIRI

**Alba Cabrera Jauregi** ESKUALDEA

Udako oporraldi epeletik lur hartu berritan, ikasturte berria hasi aurretik, amu ederra bota dute eskualdeko euskaltegiek. Urtero legez, euskararen trebatzeko aukera zabala bermatuko du aurten ere Buruntzaldeak, sei herrietan kokatutako zortzi euskaltegiekin: bina Lasarte-Orian nahiz Hernanin; bana, berriz, Andoainen, Astigarragan, Urnietan eta Usurbilen.

Astelehenetik ostiralera, goizez zein arratsalde. Bakoitzaren doinura zein neurrira egoituta abaniko zabala eskaintzen dute AEK-k zein Udal Euskaltegiek. Hutsetik hasita, maila altuenetara bitarte, belarria fintzeko eta mihia zorrozteko aukera daukate herritarrek, izan aurrez aurreko klaseetan, izan autoikaskuntza modalitatean.

Ikasketa-prozesua samurtzeko asmoz, gainera, azken hilabeteetan, konpromiso handiagoa hartu du administrazioak, dirulaguntzen zenbatekoa biderkatu eta bidea ekonomikoki gehiago babesteko xedez: eskualdeari begira, nahiz eta herri batetik bestera kopurua aldatu, guztiek bermatzen dute gutxienezko laguntza ekonomikoa, baita, kasu batzuetan, matrikularen ehuneko ehuna berreskuratzeko aukera ziurtatu ere. Gainera, hainbat kolektibok dirulaguntza osoa edo zati bat aurreratze ere eskatu dezakete.

Hori horrela, eskualdeko udalek azken urteetan hartu duten erantzukizunaren ildo beretik doa Helduen Alfabetatze eta Berreskalduntzerako Erakundea, izan ere, haren eskutik bada-eta ikasketen zati bat ordaintzerik, baldin eta ezarritako maila edota baliokidea eskuratzen badu ikasleak. Besteak beste, berrikuntzen artean, HABEk asmo berria iragarri du, irailetik aurrera: litekeena da A2 oinarriko mailan izena ematen duen pertsona orok ia doan egin ahal izatea matrikula. 310 euro ordaintzetik 70 eurora igaroko litzateke, gutxi gorabehera.



Eskualdeko euskaltegiak ordezkariek, familia-argazkian, astelehen eguerdian. AIURRI

Euskara ikasteko ateak, zabalik

Ikasturte berriari ekitear dira Buruntzaldeko euskaltegiak: eskaintza zabala bermatu ez ezik, ikasketa-prozesua ekonomikoki babesteko aukera ere badakarte. Egunotan abiatuko da matrikulazio-kanpaina

Euskara ikasteko dirulaguntzak

HABEk dirulaguntza lerro desberdinak dauzka une honetan:

Maila gainditu edo egiaztatu duten ikasleei dirulaguntzak: egiaztatutako mailaren arabera zenbatekoa.

- A1 maila: 600 euro
- A2 maila: 800 euro
- B1 maila edo baliokidea: 900 euro
- B2 maila edo baliokidea: 1.000 euro

- C1 maila, 1995ean edo ondoren jaiotako ikasleentzat: 700 euro
- C1 maila, 1994an edo aurretik jaiotako ikasleentzat: 150 euro
- C2 maila: 100 euro
- A1 maila ikasten duten ikasleei dirulaguntzak: matrikula murriztua ordainduko dute, 0,60 euro orduko.
- C1 maila helburu duten 16-18 urteko ikasleei dirulaguntzak:

matrikula murriztua ordainduko dute, 0,20 euro orduko.

Tokian tokiko administrazioaren laguntzak:

Araututa daude, eskualdeko udalerrietan, euskara ikasteko laguntza-lerroak eta, ñabardurak ñabardura, ezaugarri beretsukoak dira. Interesatuak udaletxean topatuko dute informazio osoa.

Aukera zabala Beterri- Buruntzan

ANDOAIN

Andoingo AEK

Plazaola, 2.
943 591 704.
andoain@aek.eus.

LASARTE-ORIA

Muntteri AEK

Euskaltegia

Geltoki kalea, 17 behean.
607 625 233.
lasarte@aek.eus.

Lasarte-Oriako Udal

Euskaltegia

Bekokale bidea, 1.
943 361 621.
euskaltegia@lasarte-oria.eus

HERNANI

Hernaniko AEK

Larramendi, 11.
607 592 864 / 688 746 640.
Zilegi eskola:
663 043 314.
hernani@aek.eus.

Hernaniko

Udal Euskaltegia

Karobieta, 63.
943 331 896.
euskaltegi@hernani.eus.

USURBIL

Etumeta AEK Euskaltegia

Kale Nagusia, 43 behean.
607 609 379.
usurbil@aek.eus.

ASTIGARRAGA

Astigarragako AEK

Kultur etxea. Nagusia, 48.
607 610 687.
astigarraga@aek.eus.

URNIETA

Urnietako AEK

San Joan, 42.
(Elkarteen etxea).
662 338 747.
urnieta@aek.eus.

DIRULAGUNTZAK

QR sarbidea



ANDOINGO UDALA

Andoingo Udala
20140 Andoain
Goiko plaza, z/g



Astigarragako Udala

Astigarragako Udala
20115 Astigarraga
Foru enparantza



Hernaniko Udala
Gudarien plaza, 1
20115 Hernani



LASARTE-ORIA

Lasarte-Oriako Udala
Kale Nagusia, 22
20160 Lasarte-Oria




Urnietako Udala
San Juan plaza, z/g
20130 Urnietan



Usurbilgo Udala

Jose Martin Sagardia plaza
20170 Usurbil





Izaskun Miner, Tere Lasarte, Arantxa Aldanondo eta Begoña Ubillos, Xoxokako Eskolaren sarreran. AIURRI

Hitzezko erretratu bat, Xoxokako Eskolari

Xoxokako Eskolak ehun urte bete dituen honetan, garai ezberdinetan, bertatik igarotako lau auzotar bildu ditu Aiurrik: Izaskun Miner, Tere Lasarte, Arantxa Aldanondo eta Begoña Ubillos

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Ehun urte bota behar da atzera begirada, hain justu ere, Xoxokako Eskolaren ateen irekierarekin topo egiteko. Urnietako Udal Artxiboak gordetako 1924ko maiatzaren 30eko txosten batek aditzera ematen duenez, auzoan aski nabarmena zen hutsune bati

erantzuteko helburuz sortu zen eraikina: analfabetismoa. Uzta biltzeko garaian, batez ere, “irregularragoa” izaten zen haurren bertaratzea eskolan, izan ere, gurasoei etxeko-lanetan laguntzen gelditzen ziren seme-alabak. Horrez gain, agiriak biltzen duen bezala, baserrien arteko distan-

tzia ere ez zen lagungarria, eta maiz izaten ziren baldintza klimatologiko kaskarrak ere oztopo izan ohi ziren eskolara joateko. Hori horrela, ez ziren aukera egokiak, ez herriguneko Eskola Publiko Nazionala, ez auzuneko Kintalaenea baserrian martxan jarritako eskola, irakaskuntza

sustatzeko Urnietako Udalean sorturiko Tokiko Batzarraren esanetan, azken horrek ez baitzituen gutxieneko higie-neurriak betetzen.

Hari horri tiraka ireki zen Xoxokako Eskola 1925. urteko uztailaren 2an. Hala, ia 50 urtez egon zen zabalik eta lau irakasle izan zituen: Angela Arrue (1925-1936), Matilde Aranzaolatrouque (1936-1938), Petronila Esnal (1938-1943) eta Pepita Campos (1943-1973). Bada, bertako ikas-mahaietatik auzoko makina bat haur igaro da: tartean, ondo baino hobeto oroitzen dituzte eskolako kontuak Izaskun Minerrek (Benta baserria, 1947), Begoña Ubillosek (Pagoalderdi baserria, 1950), Tere Lasartek (Aierdi baserria, 1962) eta Arantxa Aldanondok (Pagoaga baserria, 1965).

Auzolana ardatz

Herrigunetik urruti samar kokatzen den arren, herritar mordoxka bizi da Xoxokako landa-eremuan. Are gehiago, bat datoz lau ikasle ohiak: baserrien arteko distantzia ez da oztopo izan bizilagunen komunitate-ehuna sendo mantentzeko. Iraganean, heriotzen aurrean, gaixotasunen agerpenean, irteeretan... Askotariko motiboren bueltan biltzen

ziren alboko atarikoekin, laguntzeko zein elkarren konpainiaz gozatzeko. Tarteka, Aldanondok esan bezala, “ahaldiya” ere izaten zen, auzolana, bideak egiteko zein garbitzeko, uzta-biltzeko, sagardoa ekoizteko... “Artoa eta babarruna egin behar zen garaian, belarretan... elkarri laguntzen genion”, du gogoan Begoña Ubillosek. Bide horretan, zaintza eta babesa handia zela gogora ekarri du Lasartek eta harekin bat dira aho batez gainerako hirurak ere.

Bada, auzolanaz jardutean, ezin aipatu gabe utzi Xoxokako Eskola, bizilagunen prestutasun nabarmenak pisua izan baitzuen proiektuaren eraikuntzan. Hala, Altzibarko harrobiko harria eta hondarra erabiltzeaz gain, Zilegi mendietara jo zuten xoxokarrekin, bertako pagadietako egurra pilatzeko. Hasiera batean, 20.694,57 pezetako aurrekontua zuen Antonio Setien arkitektoaren zuzendaritzapeko proiektuak, baina, azkenean, egitasmoa ez zen 13.000 pezetetara iritsi ere egin, auzotarren izerdiari nahiz Foru Aldundiak emandako 4.000 pezetako dirulaguntzari esker.

Eskolaren sorreran ez ezik, horren mantenuan ere parte hartze zuzena izan zuten bizilagunek. Esate baterako, neguko egun hotzetan, estufa pizten zuten: “Gure anaiak, klasera sartzerako, egurra txikituta izaten zuen”, oroitu du Minerrek, “eskola garbitu-eta guk egiten genituen”. Gainera, ikasturtea bukatu ondoren ere izaten zen zereginik eskolan, Ubillosen hitzetan: “Gogoan dut nola etortzen nintzen izebarekin lejia bota eta lurra zuritzera!”.

Egun osoan egoten ziren eskolako ateak zabalik, goizetan, eguerditan zein arratsaldetan izaten baitziren klaseak, baita, kasu batzuetan, gauean ere. Azken horietara egun argitan bertaratu ezin zuten mutilak joan ohi ziren. “Sei urtetatik hamalaura arte, pentsa, denak nahastuta, baita klasea emateko ere”, dio Minerrek. “Nik ikasten nuen garaian, klaseak mutilak alde batean izaten ginen eta neskak bestean”, gehitu du Ubillosek. Urteak joan urteak etorri, ordea, hori aldatu egin zen, Tere Lasartek argitu bezala, Frankismo garaiko Enciclopedia Alvarez ezaguna eskuan, adinaren arabera hiru tartetan banatzen baitziren bera eskolan izan zenean.

Lezioa, “kastellanoz”

“En clase se habla castellano”, “en la clase no se habla en vascuence”... Ehun bider idatzi behar izaten zuen arbelean Ubillosoen zein Minerren garaian ikasgelan euskaraz aritzen zenak. “Nik erdaraz ez nekien, tutik ere ez!”, azaldu du Ubillosek, “Ezta guk ere!”, erantzun azkar beste hiruek, barre artean. Hala, Campos irakasleak, soilik, gaztelaniaz hitz egiten zekien. “Halabeharrez” ikasi behar izan zuten eta “oso gogorra” egin zitzaion hori Lasarteri: “Ez genekien gaztelaniaz eta Eskola Nazionala zen. Gure artean ezagutzen ginen eta denak euskaraz egiten genuen, baina, jarri zaitez gero eskolan erdaraz ikasten, irakurtzen...”. Inspektorearen bisitaldiekin ere serio demonio jarri behar izaten ziren, “oso inportantea” izaten baitzen, ikasitako lezioen gaineko azterketa egiten baitziren.

Hizkuntzaren erabilera gain, erlijioak ere bazuen pisua eskolaren egunerokoan, On Jose Inazio apaiza katekesia ematera igotzen baitzen, eta errosarioa edo kredua bezalako otoitzak ere egiten zituzten. Modu berean, garrantzitsua izan zen apaiza auzoan, haren eskutik ikasleek zenbait irteera egin baitzituzten: eta Urbiara, hondartzara, Santamiñeko kobazuloetara...

Guztia ez zen ikasmahaietan eserita egotea, ordea, jolaserako tarteak ere hartzen baitzuten. Futboleak aritu ohi ziren mutilak eta beraiek gorde-gordekan, soka-saltoan edota izena ondo oroitzen ez duten beste hamaika jolasetan.

Baserria eta eskola

Eskola-egunetan, oinez joaten ziren etxetik abiatuta. Bakarrik edo inguruko baserrietako umee-kin elkartu eta bidetxurretan gora-behera eginda ailegatzen ziren eskolara. Eta, euri egunetan, zer? “Bada, berdin-berdin! Busti egiten ginen, guardasolarekin eta katiuskekin joaten ginen”, dio Aldanondok.

Eskolako ordutegiak baserriko lanekin uztartu behar izaten zituzten etxe askotan, izan zain-tza-lanetarako, izan etxeko zereginetarako. Hala, askok adin batetik aurrera, zailtasunak izaten zituzten eskolara joateko, Lasarteren etxean, adibidez: “Ni jaio nintzenean, hamabi urte zituen ahizpa zaharrenak. Nire zaintza utzi zion amak, bera



Duela 71 urteko argazkia: ikasleekin batera ageri dira Pepita Campos irakaslea eta On Jose Inazio apaiza. URNIETAKO ERRETRATU ZAHARRAK



1962. urtea, Xoxokako Eskolan: Doña Pepita izan zen eskolak edukitako azken irakaslea. URNIETAKO ERRETRATU ZAHARRAK

esnea banatzera joan behar izaten zelako Hernanira”. Era berean, penaz hartu zuen Ubillosek eskola uztea: “Ezin nuen gehiago luzatu; aita lanean egoten zen eta etxeko lanak egin behar ziren”.

Urteen poderioz hori aldatzen joan zen, oster, eskolatik igaro ziren azken belaunaldien bueltan, jada, lehentasun potoloa zela ulertuta, ia guztiak joaten baitziren hasi eta buka eskolara.

Eskolaren itxiera

1973. urtean itxi zen Xoxokako Eskola, Pepita Campos irakasleak

erretiroa hartzearekin batera. Ubillosek eta Minerrek, dagoneko, utzia zeukaten eskola, eta, amaitu bezala, garaiko emakume gehientsuenen antzera, josten eta bordatzen ikasteari ekin zioten. Alabaina, haurtzaro koskorrean harrapatu ziren gertaerak Lasarteri zein Aldanondori. Lehena, itxierarekin batera, herriguneko Eskola Nazionalera joan zen. Bigarrena, aldiz, ikasturte bat lehenago aldatu zen eskolaz: “Zazpi urte nituela jaitsi nintzen herrira, monjetara. Jada, banekien idazten eta irakurtzen eta matema-

tiketako ariketak egiten. Ikasita joan nintzen”. Dena den, handi gelditu zitzaion biei al-daketa, “trauma, drama latza” izan zen. Tere Lasarte: “Gure kasuan, zortzi maila zeuden, aldaketa handiarekin egokitu ginen. Xoxokan denak elkarrekin egoten ginen, eta han dena zegoen banatuta, irakasle asko, bakoitza bere gaitegiarekin...”. Xoxokan sentitzen zuen goxotasunaren falta sumatu zuen Aldanondok aldaketa egitean: “Xoxokan, txikienetarikoa nintzenez, asko zaintzen ninduten. Oso-oso maitatua sentitzen nin-

tzen. Kalera jaitsi eta hori dena ez zen existitzen, oso gaizki pasa nuen”.

Lasarteren kasuan, hezkuntza publikoak ipinitako autobus-zerbitzuan egiten zituen eskolara joan-etorriak. Aldanondok, oster, kotxean egiten zuen jaitsiera, “ama esnea partitzera jaisten zenean. Ondoren, oinez igotzen ginen, tipi-tapa”.

Berriro elkartzeko premia

Auzo izaerari egonkortasuna ematen zion eskolak. Hori horrela, eraikinaren itxierak eragina izan zuen, lau elkarriketatuen iritziak, Xoxokako giroan: “Lehen, gainera, oinez ibiltzen zen jendea, elkar ikusten zen. Gero, ez, kotxeekin eta beste pasata, ezta ezagutu ere auzoko jendea!”, uste du Minerrek. Gero, aurrera aterpetxe modura ere erabili izan zen. Auzoan, “nor bere gisan” ibiltzen hasi zela dio Lasartek, harik eta, urte batzuk aurrera, 2008an Xoxokako Auzo Elkarteak sortu zen arte: elkargune baten premia plazaratu zuten bizilagunek, beren arteko harremanak estutzeko. Hala, Urnietako Udalak egin zituen zaharberritze-lanak eta gozotik zukutu dute harrezkero auzotarrek, xoxokar guztiei begirako eskaintzarekin: tailerrak, haurren merendolak, udalekuak, hitzaldiak, ikuskizunak, otorduk...

Eskutik helduta doaz Xoxokako festak ere. Sanmielen ondoren, ospakizunak hartzen du auzoa. Horrela, jaiek auzotarrak batzen dituztelakoan da Aldanondo: “Zentzu horretan errepublika independentea izan gara”.

Ehun urte poltsikoratuta

Atzera begirako ariketan jarri ditu urteurrenak Goiburuko baserritarrak. Auzoko sekretu mordoxxa gordetzen dituzte Xoxokako Eskolaren paretek, ehun urtean auzoan gertatu diren gauza guztien lekuko izan baitira. Estimatu handiz hitz egiten dute ikasle izandako askok bertan bizitakoez, buruz ikasitako gaztelaniazko lezioez zein arbeleko matematikako formulez harago ere irakaspen handiak atera baitzituzten eskolan igarotako urteetatik. Horrenbestez, gogora ekarri du Minerrek auzotar askoren bizipena: “Gure unibertsitatea izan zen Xoxokako Eskola”.

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Etxea eskola eta eskola etxe. 1943. urtetik 1973. urtera, Xoxokako Eskolak edukitako azken irakaslea izan zen Pepita Campos. Bertan bizi zen, bere bi alabekin. Marisa Berrueta da gazteena eta oroitzapen gozoa gordetzen zu Goiburun emandako urteez.

Nola iritsi zineten Urnieta bezalako herri txiki bateko auzunera?

Baten batek esanda etorri ginen. Lau hilabete nituen nik hona (Xoxokara) etorri ginenean. Ahizpak bi urte zituen. San Martin kalean bizi ginen, orduan, Donostian. Handik hona etorri ginen. Lehenago, eskola pribatu batean aritu zen ama. Hura utzi zuen gu txikiak ginelako eta gurekin egoteko, garai hartan, ez baitzegoen haurtzaindegirik ez ezer. Ondoren, hona etorri ginen. 1903. urtekoa zen ama; bada, jada, 40 urte zituen Xoxokara etorri ginenean, 1943. urtean.

Eskola bera al zen zuen etxea?

Etxea eta eskola, guztia bat zen guretzat. Neu ere izan nintzen bertako ikasle. Uztailean urteurrenean, ikusi nuenean, tripak nahastu zitzaizkidan, "hau ez da nire etxea", pentsatu nuen, oso aldatuta ikusi nuen eta! Sukaldea eta bi logela. Kito. Eskola zegoen ere, eta komun bat denentzat, bai ikasleentzat, bai etxeakoentzat.

Zein harreman zeneukaten inguruko baserritarrek?

Inguruko haur guztiekin jostatzen nintzen, guztiak baikinen lagunak: minertarrek, Bekobordakoekin, Maingoenekoekin... Amak ere harreman ona zuen inguruko baserritarrek.

Amak ez zekien euskaraz. Zuk, ordea, ikasi zenuen.

Biak! Bai euskara, bai gaztelania. Amak ez zuen euskaraz ikasi, baina ni lau hilabeterekin etorri nintzen Xoxokara. Auzoko umee-kin ikasi nuen nik euskaraz hitz egiten, beraiek ez baitzekiten espainieraz. Gaztelania klaseetan ikasi genuen.

Gaur egun, pixka bat gehiago kostatzen zait euskaraz egitea, Donostiako lagunak gaztelaniaz hitz egiten baitute. Bilobarekin pixka bat berreskuratu dut, dena dela.

"XOXOKAKO UMEEKIN IKASI NUEN NIK EUSKARAZ HITZ EGITEN"

“Etxea eta eskola, guztia bat zen guretzat”

MARISA BERRUETA CAMPOS PEPITA CAMPOS XOXOKAKO IRAKASLEAREN ALABA

Urnietako mendi aldeko auzoan eman zituen Berruetak haurtzaro osoa eta nerabezaroaren zati handi bat, bere ama, Pepita Campos Xoxokako Eskolako irakasle izan zelako, 30 urtez



Marisa Berrueta Campos, egungo Xoxokako eskolan, garaiko argazki bat ondoan duela. AIURRI

**Unibertsitate ederra izan zen, auzo-
tarren esanetan, Xoxokako eskola.
Zuk ere horrela oroitzen al duzu?**

Niretzat ere bai. Eskola bukatu eta josten ikasten hasi nintzen, lehenik, Urnietan, Kaxetako Maria eta Margarita Arizmendi ahizpekin, eta, ondoren, Donostian. Oso goiz alargundu nintzen eta, mertzeria- eta lenteria-denda jarri genuen, Donostian.

Urruti samar zegoen herrigunea Xoxokatik. Herrira, kalera jaisteko ohitura al zeneukaten?

Elizara joaten ginen, igandero, baina askoz gehiagorako ez. Hemen ibiltzen ginen jostatzen, ingurukoak. Orduan ez zegoen telebistarik, ezer ere ez, etxetik kanpo ibiltzen ginen auzoan. Gerora, nagusixeagoak ginenean, 14-15 urterekin, kalera (herrira) joaten ginen, gramolara eta...!

Zer egin zenuten behin zuen amak erretiroa hartuta?

Hamasei bat urterekin joan nintzen Donostiara bizitzera. 1973an, amak erretiroa hartzean, bertan nongoen bizitzen eta orduan alargundu nintzen, bi semerekin.

Pena eman zidan eskola itxi izanak. Egia da behin herria utzita ez ginela asko itzultzen Urnietara. Gehienbat, gure ama gerturatzen zen Donostiara, asteburuetan. Astelehen goizean trenean Urnietara etorri eta taxiz igotzen zuen Goñik "Txintxua"-k. Eta, kotxeak ez zeudenean, Maritxu Minerrek edo Dolores Juangorenak jaso izan zuten astoan.

Urteak igarota, nola oroitzen zituen amak Xoxokako urte horiek?

Askok gogoratzen zen eskolarekin, urte asko eman baitzituen bertan, 30. Oso oroitzapen ona zuen. Harreman handia egin zuen baserritar batzuekin, adibidez, Maingoeneakoekin. Bertakoari nik "amona" deitzen nion, amona Martina.

Eta zuk? Berezia egiten zaizu tokia oraindik ere?

Oroitzapen ona daukat nik ere, oso ona. Batzuekin mantentzen dut harremana, gaur egun ere. Beti gogoratzen naiz asko toki honekin, hemen hazi izan naiz eta.

"INGURUKO HAUR GUZTIEKIN JOSTATZEN NINTZEN, GUZTIAK BAIKINEN LAGUNAK"



Txosnagunea, artxiboko irudian. AIURRI

Zer nolakoak izango dira aurtengo Sanmielak?

Ezohiko egoerarekin egingo dute topo urnietarrek irailaren amaieran, herriko Sanmielei hasiera ematean, izan ere, ez da txosnagunerik egongo, ez eta Txosna Batzordeak antolatutako egitaraurik ere

Erredakzioa URNIETA

Urtero-urtero, irailean murgildu bezala, hilabete amaierari begira ipini ohi dira urnietarrek, orduan ospatzen baitira herrian Sanmielak. Aurtengo ordea, bestelako zaporea izango dute jaiek: ez da txosnagunerik egongo, ez eta Txosna Batzordearen egitaraurik ere. Zer dela eta, baina? Zein aurrekari ditu erabakiak?

Begirada orain pare bat hila-bete atzera botata, agerraldia egin zuten hainbat herritarrek, uztailaren lehenean, Txosna Batzordeak deituta, "Urnietako

txosnak, arriskuan" lemapean. Sanmielei begira, Udal gobernu-taldearekin edukitako harreman gatazkatsua salatzeke xedez egin zuten agerraldia Plazido Muxika plazan, txosnagunearen bueltan biltzen den eragileen ordezkari-tza zabalarekin: "Honen aurrean, garbi dugu gure postura. Txosna Batzordea da txosnagunea kudeatzeko dagoen talde zilegi bakarra". Hutsune bati erantzuteko asmoz sortu zen Txosna Batzordea 2023an, txosnagune "justu eta eraginkorrako" bat sustatzeko, baita herriko asko-

tariko eragileren bizikidetzak sustatzeko helburuz ere. Hala, agerraldi horretan aipatu bezala, 2024. urteko irailean, Txosna Batzordea "kontuan hartu gabe", haren jardunarekin zerikusia zuten ordenantza atera zuten Urnietako Udalak: "Bertan, txosnagunearen gaineko kontrola hartzen dute, besteak beste, isun ekonomikoak ezarri, adierazpen askatasuna mugatuz edota kokalekua eta eragile kopuru maximoa erabakiz". Bide horretan, 2025eko urtarrilean ekin zioten herri-eragileek Sanmielak anto-

latzeari. Hala, agerian jarri zuten, isiltasuna izan da Udal gobernu-taldearen partetik jaso duen erantzuna negoziaketarako deia luzatu izan diotenean: araudi berriaren gaineko eztabaida, txosnen irekiera egunen zehaztapena, aurrekontua... "Horrez gain, Udal gobernuak aukeratu du txosna nork jarri eta nork ez, beraien irizpideen arabera. Horrela, Txosna Batzordearen parte diren eragile batzuk kanpoan utzi ditu".

Bada, prentsaurrekoaren bihar-munean, ohar bidez eman zuten bere bertsioaren berri Urnietako Udalak. Aipatutako ordenantza indarrean jarri aurretik, Jai Batzordearen aurrean aurkezteaz gain, "inplikaturako" elkartei bidali zitzaizela zehaztu zuen Urnietako Udalak, baita 30 egunez jendaurrean ipini ere: "Prozesu horretan ez zen aldaketa-proposamenik edo iruzkinik jaso, eta hori araudiaren onarpen orokor gisa interpretatzen dugu".

Txosnagunea "funts publikoekin diruz lagundutako gunea" dela argitu zuen Urnietako Udalak oharrean, eta, hori horrela, "espazio publikoaren erabilera antolatzea eta arautzea" du helburu araudiak, "parte hartzeke eskubidea, bizikidetzak, aniztasuna eta segurtasuna bermatuz", herrian egoitza duten elkarteak lehenetsita. Iaz, 27.665,48 euro bideratu zituen txosnagunera Urnietako Udalak, "zenbait elkarteri gune horretako jarduerak espezifikotarako ematen zaizkien dirulaguntza gehigarriak kontuan hartu gabe". Azalpenak emanda, elkarrizketarako prest dagoela adierazi zuen erakundeak.

Uda sasoiaren bi aldeak bildu arren, "aldaketa bermerik ez dagoela ikusita", irakurketa bidez, planto egin zuten abuztuaren erdialdean Urnietako Txosna Batzordeak: "Ordenantza aldatzeko gure proposamena luzatu genien, puntuz puntu azalduta, eta beraien proposamenarekin erantzuteko konpromisoa hartu zuten. Adostutako epeetan ez dugunez proposamenik jaso, ezin izan dugu negoziaketa hasi". Horren aurrean, aurtengo, ez dute txosnarik jarriko Sanmieletan, ez eta egitaraurik antolatuko ere. Dena dela, datorren urteari begirako negoziaketekin hasteko prestutasuna erakutsi zuten.

Erabakiak erreakzio-katea eragin zuten agintari politikoen artean. "Penaz" hartu zuten Urnie-

tako Udalak albisteak, eta, egoerari erreparatuta, arazoa "txosna jartzeko eskaera-kopurua handitu denean" sortu denaren iritzia da: "Iaz, Urnietako jaietan txosnak egon ziren ordenantza berarekin, aurtengo txosna eskatu duten elkarte berdinekin eta ez zen arazorik izan". Ordenantza aldatzeko prozesu bati ekiteko adostasuna erakutsi arren, Urnietako Udalak adierazi zuen aldaketa horiek ezingo direla eman jaien aurretik, denbora behar baita legezko izapideetarako: "Eskatutako aldaketaren artean, legezko artikulua batzuk ezabatzea eskatzen da, baina udal ordenantza bat denez eta legez-kotasunari lotuta daudenez, agertu egin behar dira". Hari horri tiraka, begi onez ikusten du Urnietako Udalak "Txosna Batzordeari protagonismo handiagoa ematea", baina "beharrezkotzat" jotzen du berauen izaera eta funtzionamendua argitzea. Ondorioz, ordenantzaren zirriborro berririk ez dago, gaur gaurkoz, nahiz eta horren gainean lanean jarraitzeko konpromisoa azaldu: "Txosnetarako gunea erabilgarri egon da, dago eta egongo da, eta Urnietako Udalak prest jarraituko du txosnagunea egon dadin. Azkenik, musika eta kultur eskaintzak jaietako programazioan jarraituko duela argitzen da".

Bestalde, zorrotz hitz egin du, bere aldetik, ohar batean, oposizioan dagoen EH Bilduk. Iaz, ordenantzaren aurka bozkatu zuten alderdiak, haien esanetan, bi arrazoi direla eta. Batetik, Udal gobernu-taldeak ez zien ekarpenik egiteko aukerarik utzi; eta, bestetik, ez zen Txosna Batzordeko kideekin kontrastatu: "Araudi plural eta parte-hartzaile bat lortzeko beharrezkoa da inplikaturako eragileekin zuzeneko elkarlana". Alderdiaren ustez, "gobernatzeko modu jakin baten ondorio" da aurtengo Sanmieletan txosnarik eta haiei lotutako hitzordurik ez egotea: "Herritarrekin eta elkarteekin kolaboratu ordez, gobernuak aldebakarrez eta goitik behera inposatzen ditu udal politikak". Gobernu-taldea begira ipini da oposizioari: "Beharrezkoa da urgentziazko mahai bat eratzea, egoera bideratuko duten erabakiak lehenbailehen hartzeko".

Gauzak horrela, ez ohiko Sanmielen atarian dago Urnieta.



Goiburu-Sorabilla "desapiyo" ikusgarri eta dibertigarria egin zuten auzo horietako taldeek. Gozatu ederra hartu zuten Sorabillako pilotalekua gainezka jarri zuten ikusleek. AIURRI

Sorabillako jaiak biziberritu dituzte auzoko gazteek

Asteburu beteko jaiak antolatu zituzten gazteek, Jai Batzordea osatu berritan, egundoko ilusio eta gogoz eta edonor asebetetzeko moduan, eta giro ederrean igaro dituzte auzotarrek zein bertaratu diren kanpotarrek

Xabier Lasa ANDOAIN

"Pentsatzen genuena baino jende gehiago gerturatu zaigu, eta pozik gaude" adierazi zuten Arkaitz Amenabar eta Maider Arabaolaza Jai Batzordeko ki-deek igande gauean, festa amaitu eta azpiegitura guztia desegiten ari zirela, eta bazituzten arrazoiak balorazio baikor hori egiteko. Azken bi hamarkadetan auzoan festak antolatu zituen Jai Batzordeak uko egin zion antolaketari, eta erronka latza zeukan jarrita eginkizun

horri estrainekoz heldu dion gaztediak.

Bada, erreportaje honetako argazkiekin zein Aiurriren web orrian egunez egun zabaldu diren argazki-sortekin eta bideoekin erreparatu besterik ez dago

"PENTSATZEN GENUENA BAINO JENDE GEHIAGO GERTURATU ZAIGU, ETA POZIK GAUDE"

ohartzeko Sorabillako jaiek eduki duten arrakasta.

Iturzaeta pala finaleko errebantxak, artisauen azoka, haurrentzat sormen tailerrak, auzoafaria eta zikiro-jatea, Goiburu-Sorabilla "desapiyua", bertso saioa, bi gau-dantzaldi, sagardo dastaketa, mus txapelketa... Gogo guztientzako kabida eduki du Sorabillako jaien programak, egia esanda, eta jende ugari eduki du ekitaldi horiekin gozatzeko aukera, aldarte gozoan gozatu ere.

Auzolanean, eredugarri

XABIER LASA ANDOAIN

Albiste benetan pozgarria gertatu da azken egunetan, Sorabilla Jai Elkarteak gizarteratu den heinean. Auzoko gazteek (auzoan bizi diren 17-25 urte bitarteko gazte gehien-gehienak) hilabeteak zeramatzaten Sorabilla Jai Elkarteak biltzen eta talde giroa goxatzen, administrazioarekin premiazkoak diren gestioak egiten, egitaraua osatzen... Eta azkenik, joan den asteburuan bistaratu zaigu hilabeteetan isilean eramandako ekimenaren emaitza.

Egunak igarota, aurreko asteburuan bizitakoa zergatik ez izendatu Andoaingo gizarte eta kultur dinamikan urteko albisterik azpimarragarriena? Izan ere, "gaurko gazteak, herriko bizitzan inplikatzeko al dira, ba?" maiz entzun –eta denok ere ahorratu– izan dugun gutxiespeneko kopia horri matraileko galanta eman diote, alajaina!

Auzolana, komunitate-nortasuna eta festa elkar-gune eta goza-gune izateko gogoia ardatz hartuta, munduko ilusiorik eta motibaziorik handierarekin jardun dute gazteek egunotan, Sorabillako jaiak gogoangarriak gerta zitezen auzotarrentzat eta kanpotik hurbiltzekoak zirenenentzat. Datorren irailaren 8ko goiz festa txikia –meza, Alberto Agirrek abestuta, eta hamaiketakoa– geratzen zaie, baina bikain batekin gaingidu dute estreinaldia, egia esanda. Bistakoa da etorkizuna badutela Sorabillako jaiek.

Nolanahi ere, ezin aipa gabe utzi administrazioetik edukitzen ari diren traba burokratikoak. Gezurra dirudi, herriitik abiatuta, herriarentzat eta musu-truk lan egiteko prest dauden herriartaldeari halako behaztopa etsigarria jartzea...

Zenbateko sinesgarritasuna eman, gero, "Euskadi, auzolana" leloarekin ez asko egin izan den publizitate kanpaina ofizial autokonplazienteari?

Ondo pentsatzen jarri gero, eta ikuspegi baikorrari helduta, esan behar Sorabillako gazteei bikain etorriko zaiela azken hilabeteetan pilatu duten eskarmentua, datozen urtetan sortuko zaien buruhausteetarako prest egon daitezen. Besteak beste, herri dinamika kaltetzeko sortua dela dirudien TicketBai sistemaren ezarketa.



Gora Kalexiki txarangak jai hasiera girotu zuen. Besteak beste, "Sorabilla" eta "Joxe Mari Iturzaeta" abestiak jo zituen. AIURRI



Zipitria, Amondarain, Ponce, Urain eta Gonzalez, emakumeen finalean. AIURRI



Rbelde sorkuntza espazioaren postua, artisauen azokan.



Elizako arkupetan egin zuten auzo-afaria, ostiral gauean.



Elustondo, Arzallus, Labaka eta Mendiluze, bertsoan elizan. AIURRI



Festazaleak dantzan jarri zituen Malkogarriyak-ek, igandean. AIURRI



Xabier Alkorta eta Maider Arabaolaza 'karretilaren jokoan', eta ikusleak adi-adi, txaloka eta barrez. AIURRI



andoa**INDARRA**
euskaraz



San Inazio eguneko auzo-bazkarian adinekoena zen Matilde Alvarez omendu zuten. AIURRI

Auzokide sentimendua indartzeko hitzorduak

Bi egun besterik ez dira behar auzoarekiko lotura estutzeko: San Inazio bezperan eta San Inazio egunean metatu dute aurtengo egitaraua eta, nagusiki, etxeberrietar sentimendua indartzeko baliagarria izan da

Xabier Lasa ANDOAIN

Lana gogotik egin behar izaten da auzotarren bazkarian, bereziki, jai batzordeko kideen eta boluntarioen eskutik. Baina jarritako mahaia bete egiten dira eta, gaitzerdi! Gozagarria baita hartutako lanak erantzuna baduela ikustea. San Inazio eguna da etxeberrietarren egun handia, bertan bizi diren eta bizi

izandakoen bilkura baita. Ondoen herri bazkarian ageri da batasun hori eta, bereziki, bazkalosteko omenaldi-ekitaldian. Aurten ezusteko galanta hartu zuen Matilde Alvarezek, lore-sorta jasotzera deitu zutenean. Urte luzeko lan isila eskertu zioten keinu polit horren bidez. Beste omendu bat izan zen: Angelines Lopez. Adinekoena zen bazkarian

eta hari egindako omenaldia, hein batean, belaunaldi oso bat aintzat hartzeko baliagarria izan zen. Izan ere, haren suia Jaionek egindako adierazpenean, Angelinesek eta belaunaldikideek egindako ibilbidea bikain azaldu zuen. Bizitza hobe baten alde Espainiako hainbat tokitatik hona etorritakoen biografia beretsua da.



Angelines Lopezek ezustean jaso zuen omenaldia, auzo-bazkarian. AIURRI



Auzotar taldea ikurrina jartzeko unean. AIURRI



Auzoan barrena egin zuten danborrada, San Inazio bezperan. AIURRI



Urtea joan, urtea etorri, jendetza elkartzen da Etxeberrietako jaietako auzo-bazkarian. AIURRI



Kilikiren emanaldiarekin amaitu ziren Etxeberrietako jaiak. AIURRI



Harrigarria da Oilasko-biltzeak zenbat gazte erakartzen duen, eta harrigarria horiek zer nolako umore-giro polita zabaltzen duten baserriz-baserri eta etxez-etxe, auzoan. AIURRI

Jendetza hurbildu zen Goiburuko jaietara

Oilasko-biltzearen usadioak jaiei hasiera eman zientetik, etengabeko jai-giroa nagusitu zen San Esteban jaietan hurrengo hiru egunetan. Eguraldiak ere bikain lagundu zuen, festa paregabeak ospa zitzaten plazan zuhaizpean

Xabier Lasa ANDOAIN

Sasoi betean dabil SEGA Jai Batzordea; gazte mordoa bildu du aurtengoan ere, lanerako ez ezik jaiez gozatzeko gogoz. Nekez hobetu litekeen egitaraua osatu dute, gazte zein helduak ase uzteko moduan, ezin finago ibili dira lau eguneko antolakuntzan, eta lortu dute auzo jai guztiek eduki ohi duten amets bikoitza: alegia, jaiak auzotarren eta bertara hurbiltzen diren bisitarien

elkargune eta goza gune izatea, batetik, eta, bestetik, auzoaren eta auzotarren berezko nortasunari eutsi ahal izatea.

Oilasko-biltzean, bi auzo-afarietan, Gabezin, Olgetan zein Zuttik taldeen emanaldietan, SEGA-Sorabilla "desapiyuan", palako finaletan, sagardo-dastaketan nahi beste zenbait ekitaldietan atera ziren argazki-sortak eta bideoak arrakasta horren erakusgarri dira.



Lehia eta umorea izan ziren nagusi Sorabilla-SEGA "desapiyuan". AIURRI



Erromeriak indar handia du Goiburun, gazte zein helduen artean.



Jende mordoxka bildu zuten pilotalekuan egin ziren auzo-afariak.



Taulelak antzerki taldeko Aroa Blanco eta Maite Lopez, Euskaldungak antzezlanarekin. AIURRI

Festa-giro ederreko bi egun, Buruntzan

Abuztuaren 15ean zen 16an bero-zapa ikaragarria egin bazuen ere, ederki asko igaro zituzten festak Buruntzan; izan ere, denetik eduki baitzuten: erromeria, patata-tortilla eta postre lehiaketak, bazkaria, bertsolariak, antzerkia, magia...

Xabier Lasa ANDOAIN

Zertan gozatua eduki zuten Buruntzan festazaleek, egiazki. Festari hasiera emanez, Maite Lopez eta Aroa Blanco antzezleek barreak eragin zituzten ikusleen artean, euskaldun zahar eta euskaldun berrien arteko xextrak umorez jorratu baitzituzten. Parte-hartze handiko patata-tortilla eta postre lehiaketak

heldu ziren ondoren, eta egunari amaiera emateko, gerri-astintze latzari ekin zioten Ostolaza eta Larrañaga trikitilariekin, erromerian.

Ekitaldiz bete-betea etorri zen bigarren eguna. Goizetik, Olagaineko txistulariek auzotarrak agudo esnarazi zituzten beren txistu-doinuekin. Auzoan hilda-koen aldeko meza egin ostean,

ekitaldiak bata bestearen atzetik heldu ziren: Burdina elkarteko kideen azalpenak auzoko ondare historikoaren gainean, Soka dantza, binakako toka txapelketa, Aitor Mendiluze eta Sustrai Colinaren bertso saioa, bazkaria Gaztañaga sagardotegian, erromeria Elustondo anai-arrebekin, eta amaitzeko, Asier Kidam magoaren ikuskizuna.



Joxepa Elola eta Joxe Ramon Telletxea auzotarrak, pozik patata tortilla lehiaketan.



Ander Armendariz, Gregorio Olasagasti eta Txanka Arruti, Burdinako kideak. AIURRI



Jon Ostolaza eta Andoni Larrañaga trikitilariek erromeri-giro polita sortu zuten.



Olagain Txistulari Elkarteko txistulariek eta Urki Dantza Taldeko dantzariak urtero eusten diote Soka Dantzaren usadioari. AIURRI



Parte-hartzaile ugari bildu zituzten patata-tortillen eta postreen lehiaketek. AIURRI

Omenaldia Urkaregi eta Etxarri txirrindulariei

Andoaingo Txirrindulari Eskolak parte hartu zuen Larraulen egin zuten omenaldian

Erredakzioa ANDOAIN Andoaingo Txirrindulari Eskolak, Danena Kirol Elkarteak eta Larraulgo Udalak antolatu zuten ekitaldia eta ingurukoen goxotasuna sentitu ahal izan zuten bi gazteek. 18 urte ditu Eñaut Urkaregik eta Apeldoornen (Herbehereak) lehiatu berri diren Munduko Pistako Junior Txapelketan madison probako txapeldun eta bakarkako jazarpen probako azpi-txapeldun izan da. Etorkizun oparoa du gazteak txirrindularitzan. Datorren denboraldian Lidl Trek taldearekin arituko da.

Txapelketan Izaro Etxarri Aranburu adunarra ere aritu da. Madison proban bosgarren postua lortu zuen Andoaingo Txirrindulari Eskolako kideak.



Izaro Etxarri eta Eñaut Urkaregi Larraulen eskaini zieten omenaldian. AIURRI

Urrezko domina

Aimar Perez Lainez gazte andoaindarrak munduko txapelketan urrezko domina irabazi zuen abuztuaren hasieran, Randori Youth Class izeneko jardueran. Japoniako Hamamatsu hirian jokatu da txapelketa joan den asteburuan, eta onena izan da bere mailan Kabutoken Kenpo Kaiko kirol taldeko gazte kirolaria. Kenpo Kai Japoniako diziplina tradizionala da; karate, jiu-jitsu eta judoa konbinatzen ditu kirol jarduerak. Defentsa pertsonalean oinarritzen da.



KABUTOKEN



Ohorezko Mailako taldea, denboraldia prestatzeko lanetan. AIURRI

Larramendi Torneoa 50. ediziora iritsiko da aurten

Gizonezkoen txapelketa larunbat honetan da; emakumezkoena, datorren hilaren 20an

Erredakzioa ANDOAIN Ohorezko Mailako ligan ariko den Euskaldunak bi gonbidatu izango ditu: Deusto eta Real Union. Hiruko txapelketa izango da eta Euskaldunak dagoneko iragarri ditu ordutegiak. 16:30ean abiatuko da txapelketa. Sarrera solidarioa izango da, Nahia Patinoren alde.



Senior mailako taldea berreskuratu du Euskaldunak. AIURRI

Ansak min hartu zuen buruz buruko txapelketan

Banakako Eusko Label Txapelketako ligaxkako laugarren partidatik erretiratu behar izan zen

Erredakzioa URNIETA Aurreko asteburuko partida txapelketa irabazteko faboritoen artekoa zen. Ansa II eta Barrenetxea IV aurrez aurre ziren eta partida behar baino lehenago amaitu zen urnietarrak lesioa izan zuelako. Halabeharrez, Banakako Eusko Label Txapelketako ligaxkako laugarren partidatik erretiratu behar izan zuen. Ondorioz, partidaren azken emaitza 30-13koa izan zen Barrenetxearen alde. Emaitza horri esker, hernaniarra finalean izango da.

Egunotan probak eta erresonantzia egiten ari da Ansa. Oriamendik, egoera ikusita, aukera guztiak zabalik ditu: "Logikoa izango da bi aldiz txapeldun izan den Ansari bi asteko tarte ematea, Azpirozek eta Barrenetxeak datorren larunbatean joka dezaten. Lesioa larriagoa bada, eta bi astetan osatu ezin bada, kanporatuta geratuko litzateke Ansa. Azpiroz-Juanenea artean jokatuko litzateke finalaurrekoa eta finalean zain izango dute Barrenetxea IV".



AIURRI

Europako txapelketan dira

Maren Telletxea Paz eta Dani Fernandez Diaz 14 urteko gazte andoaindarrak Kayak Surf kiroleko Europako txapelketan parte hartuko dute hurrengo egunetan, Euskal Herriko selekzioa ordezkatzuz. Itsas olatuetan praktikatzen da Kayak Surfa, eta piraguismoaren eta surfaren arteko nahasketa da.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

EUSKARA

ANDOAIN, URNIETA Ikastaroak
Euskara ikasteko deialdia zabalik da bi udalerrietan.
Informazioa: 2-3. orrialdeak.

ODOL-EMAILEAK

ANDOAIN Hitzordua
Gotatanta.eus webgunean sartuta eman daiteke izena.
Irailak 8, astelehena.
16:30-20:30, Osasun Etxea.

URNIETA Hitzordua
Gotatanta.eus webgunean sartuta eman daiteke izena.
Irailak 15, astelehena.
16:30-20:30, Gazteleku.

JAIK

URNIETA Etxeberri plaza
Etxeberri plaza jaietan murgilduko da laster. Ikasturtea hasi berritan agerpena egingo du Etxeberritxo jaietako protagonistak. Adi!
Larunbateko auzo-bazkarirako eta auzo-afarirako txartelak erosteko azken eguna irailaren 8a izango da.
Egitaraua:
Irailak 12, ostirala
18:30 Txupinazoa.
19:00 Zezen-mekanikoa.
20:30 Komerik erromeria.
Irailak 13, larunbata
11:00 Diana: Txanbolin.
11:30 Lasterketa, aurpegi margoketa eta jokoak.
13:30 Herri-bazkaria.
16:30 Bingoa.
18:00 Apar festa.
18:00 Flowing DJ eta Mike DJ.
19:00 Kirol jolasak.
19:30 Urdaiazpiko-ebakitzailak.
21:00 Herri-afaria.
22:30 Saturday night Flowing DJ eta Mike DJ.
Irailak 14, igandea
12:00 Txirrista irristakorra.
18:00 Zirko Txosko. Eguraldi txarrarekin Egapen.

ANDOAIN Sorabillako jaiak
Meza, Alberto Agirre abesbatzak abestuta. Ondoren, hamaiketakoa.
11:30, Sorabilla.
Irailak 8, astelehena.



Dantza emanaldia, asteburuan, Andoainen. **AIURRI**

ANDOAIN IkusZirkus zikloaren lehen emanaldia
“Des(a)nuda” ikuskizuna eskainiko du Maitane Sarralde dantzariak. Dantza garaikidea eta zintzilikatutako dantza uztartzen dituen proposamen eszenikoa da. Beste bi emanaldi jasoko ditu Ikuszirkus zikloak: “Ardatzak” malabare-saioa, irailaren 13an, Goikoplazan; eta, “Leinu” zirku-emanaldia, irailaren 19an, Bastero Kulturgunean.
Irailak 6, larunbata. 18:00, Zumea plaza.

IRTEERA

ANDOAIN Ibilbide-gidatua
Irailaren 13an, Andoaingo guduari buruzko ibilaldi gidatua antolatuko du Larramendi Bazkunak.
Irailak 13, larunbata.

IKASTAROAK

URNIETA Lekaio eta Sarobe
Joskintza, marrazketa eta pintura, zur taila, sukaldaritza, funky, yoga,

hip-hop, jazz dance... ikasturte berriko eskaintza zabalik da. Izen-ematea Sarobe, Lekaio eta Bertan bulegoetan egin daiteke.
Epea: Irailak 15.

BILKURA

ANDOAIN Palestinaren alde
Gernika-Palestinak deituta, elkarretaratze zaratzatua.
Irailak 5, ostirala.
19:00, Goikoplaza.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Sin cobertura
Irailak 6, larunbata. 19:30.
Irailak 7, igandea. 19:30.
Irailak 8, astl. 17:00, 19:30.

Pitufos

Irailak 7, igandea. 17:00.

Los futbolisimos 2 - El misterio del tesoro pirata
Irailak 13, larunbata. 17:00.
Irailak 14, igandea. 17:00.



SINOPSIS

Sin cobertura
Zuzendaria: Mar Olid. **Aktoreak:** Alexandra Jiménez, Ernesto Sevilla, Luna Fulgencio, Amia Miranda, Aimar Miranda, Luis Callejo, Pepe Viyuela. **Herrialdea:** Espainia (2025). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 94 m.

Mugikorrik gabeko mundua, amets

Rita familiako txikiena da, eta nazkatuta dago gurasoak eta anai-arrebak beti mugikorrari begira egoteaz eta berari jaramonik ez egiteaz. Amamaren herrira egindako bidaia batean, pitonisa bat ezagutzen du, eta hark desio bat betetzea onartzen dio: mugikorrak desagertzea. Herritik irtetea, laino trinko batek autoa inguratzen du eta estaldura gabe geratzen dira. Ritaren desioa bete da, baina ez zuen irudikatzen zuen moduan... Izan ere, denboran atzera egin dute, eta Erdi Aroan daude bete-betean. Familiak bere adimena erabili beharko du orainaldira bueltatzeko modua bilatzeko, Berrikonkista garaiko herri feudal batean bizirik irauten saiatzen diren bitartean.

SINOPSIS

Pitufos

Pottokiak, musikala

Animaziozko film musikal bat, sorkuntza ikonikoetan oinarritua. Aita Pitufua modu misteriotsuan bahitzen dutenean sorgin gaiztoek, Razamelek eta Gargamelek, Pitufinak Pitufuak eramango ditu benetako mundura, hura salbatzeko misio batean. Lagun berrien laguntzaz, Pitufuek beren patua zer den aurkitu beharko dute unibertsoa salbatzeko. Rihanna kantari ezagunak ekoitzi eta musikatu du filma.



Urnietako
udala

KOMUNITATEA

MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA BETERRI-BURUNTZA

Andoaingo Guduari buruzko ibilaldi gidatua, irailaren 13an

Irailaren 14an, igandearekin, Andoaingo gudua gertatu zeneko 188. urteurrena beteko da. Horren harira, aurreko bi urteetan egin zen bezalaxe, irailaren 13an, larunbatarekin, guduari buruzko ibilaldi gidatua antolatu du Larramendi Bazkunak.

Ibilaldia Jon Unanuek zuzenduko du eta goizeko 10:30ean hasiko da, ordu pare batez Andoaingo kale eta txokoetan barrena ibiliz herrian izan den gertakari historiko larrienetakoaren berri emateko. Hasiara Goikoplazan emango zaio, elizaren eskaileretan eta, amaiera, Otietako Unanibiko zubian, bertan emango baitie Unanuek amaiera bere azalpenei han izan ziren borroken berri emanez.

1837ko irailaren 14an gertatu zen Andoaingo gudua, Gurutze Santua goratzeko Eliza katolikoak izendaturiko egunean (urteak bi Gurutze Santu egun baitauzka), lehenengo Karlistaldian. Carlos erregegaia bere gudarostearekin Madrilerantz joana zela baliatuz, O'Donell jeneral liberalak Donostia eta Hernanitik bere agindupeko tropak, 7000 gizon inguru, Andoainera ekarri zituen eta kanpamendua Goikoplazan ipini, inguruan ziren soldadu karlistak Oria eta Leitzaran



Andoaingo Gudua. AIURRI

ibaien bestalderantz uxatu eta bidean izua, hondamendia eta bortxa zabaldu ondoren.

Aurrerabide horren albisteak jaso bezain laster, Uranga jeneral karlista Nafarroatik batailo batzuekin etorri zen eta kontraerasoa antolatu zuen, horretarako 3.500 mutil bildurik. Irailaren 14an jo zuten kontraerasoa karlistek eta O'Donell engainatu ondoren oso borroka gogorrak izan ziren Andoaingo kaleetan barrena. Egun hartako borroketan 600-800 lagun inguru hil ziren, gehienak gudaroste liberekoak, haien artean Karlistaldian borroka egitera Erresuma Batutik etorritako Legio britainiarreko ingeles, eskoziar eta irlandarrak.

Andoaingo herriak eta aldirikoez hondamendi handia izan zuten: Andoainen 55 baserri guztiz kiskali zituzten, bertakoak ihesean jarri ondoren; Urnietan herri ia osoa kiskali zuten, bost etxe besterik ez zen zutik gelditu. Lehenengo karlistaldian izandako gudurik ankerrenetakoa izan zen, historiografia ofizialak nahikoa bazterrean utzi izan duena alderdi epiko handirik ez eta herritarren oso oldarraldi gogorra izan zuelako.

Horri guztiari buruzko azalpenak entzun eta gertakariak izan zireneko lekuak ikusi ahal izango dituzte partaideek, Leitzaran ibaian gora azkena Unanibiko zubian entzuteko.

Guztiz zehazturik ez dagoen arren, ibilaldia haxe izango da: Goikoplaza (eliza), Plaza Gorria, Kale Nagusia, Gurutze Santua, Bekoplaza, Lizarkolako ubidea, Otiet (Unanibiko zubia).

Ibilaldi gidatuan gehienez ere 25 lagunek parte har dezakete eta aurretik izena eman eta 10 euro ordaindu behar dira. Horretarako, idatzi harrera@larramendibazkuna.eus helbidera edo deitu 656-782-521 zenbakira. Esan bezala, partaide kopurua mugatua izango da.

KOMUNITATEA

BETERRI-BURUNTZA MANKOMUNITATEA

Irailean hasiko da ostalaritzako prestakuntza berria

Irailaren 15ean abiatuko da "Jatetxeko eta ostatuko oinarritzako eragiketen" doako prestakuntza eskualdean.

Beterri-Buruntza Mankomunitateak, Erroak Sartu elkartearekin elkarlanean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Elkar-Ekin Lanean estrategiaren barruan kokatzen den prestakuntza-ibilbide berri bat hasiko du irailaren.

Ostalaritzan trebatzeko doako prestakuntza honek lan-merkatuan oso baloratuak diren gaitasunak eskuratzeko aukera ematen du: ziurtagiri profesionala, enpresetan praktikak eta laneratze-aukerak barne. Prestakuntza honek ostalaritzan laneratzeko bide sendoa eskaintzen du, sektorean eskarian dauden lanpostuetara bideratuta.

Ikastaroa teoriko-praktikoa eta guztiz doakoa da, eta eskualdeko langabetuei zuzenduta dago.

Izena emateko, interesdunek formularioa bete beharko dute.

Izen-ematea

- info@erroak.sartu.org
- 604 559 668


ZORION AGURRAK



ANDOAIN Zorionak Luken! Segi beti bezain txintxo! Muxu handi bat familia guztian partez.



ANDOAIN Laura Alonso Abuztuaren 6an 6 urte bete dituzu! Zorionak bihotza!!!



URNIETA Lizar, zorionak! Hilaren 9an bederatzi urte beteko dituzu. Egun oparoa igaro eta gozatu etxekoekin.

MERKATU TXIKIA

ALOKAIRUA

Iruñeko pisu batean bi gela libre daude alokatzeko. UPNaren inguruan. Bi unibertsitateko ikasle bila gabiltza, neskak eta euskaldunak. Bestela, ez molestatu, arren. Interesatuak deitu 665 719 827 telefonora.

HEZIKETA

Zure tikiarekin daukazu harremana hobetzeko aholkuak emailaz jaso nahi? (dohainik) www.angiru.es/angiru-tribua



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri: Ebeiz ebeiz harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 50 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra: Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Alba Cabrera Jauregi.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urniet).
Diseinua: Goiena / TOKIKOM.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zera Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ ALIATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA Urnietako udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA: BABESLEAK:

Gipuzkoako Foru Aldundia Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

AIURRIKO harpidedunak ezinbestekoak dira.

ZIURTAGIRIA:

1. URTEURRENA

Fani JAUREGI ARISTEGI

2024ko abuztuaren 8an joan zinen, baina zure indar eta bizipozak gure bihotzean bizirik dirau.

Senideak

Andoainen, 2025eko abuztuaren 8an



Urteak daramatzate auzo-elkartean murgilduta Estela Cuevas eta Esther Toribio. AIURRI

“Urte osoko lanaren emaitza da festen egitaraua”

ESTELA CUEVAS ETA ESTHER TORIBIO ETXEBERRI AUZO ELKARTEA

Ostiraletik igandera, askotariko hitzorduak izango dira Etxeberri plazaren bueltan. Aurten gainera, zenbait berrikuntzarekin dator egitaraua

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Udako oporralditik lur hartu berrian, festen atzera kontaketan murgilduta dabilta Urnietako Etxeberri auzo-elkarteko bizilagunak: irailaren 12tik hasita 14ra bitarte, jaiak izango dira plazaren bueltan. Horretarako lanean izan dira buru-belarri auzotarrak, tartean, Estela Cuevas Diez eta Esther Toribio Rodriguez.

Udako opor-sasoia aurretik egiten al dituzue jaiak egiteko etxeko lanak?

Estela Cuevas: Uztailaren amaiera alderako, jada, amaituta ditugu festei begirako etxeko-lanak. Izan ere, gutako asko abuztuaren oporretan gaude eta udaletxea geldu samar dago hilabete horretan. Are gehiago, larunbateko bazkari txartelak uztailaren saltzen hasi ginen, abuztutik iritsi berrian, korapilotsu samarra da-eta, festa hasi baino aste eta erdi lehenago guztia saltzen hasia.

Zeintzuk dira gelditzen zaizkizuen azken orduko zereginak?

Esther Toribio: Txosnako txandak bete, kartelak pegatu, azken orduko erosketak... Dena dela, urte osoan egiten dugu lan, hau da, urte osoaren emaitza da festen egitaraua.

E.C.: Ostiralean jarriko dugu, soilik, txosnaguneko janari-eskaintza. Halere, egun horretan eguraldi txarra egingo balu, larunbatera pasako genuke aukera. Bestela, asteburu osoan salduko dugu edaria. **Ikasturte berriari modu samurragoan ekiten laguntzen al du festak?**

E.C.: Uda pixka bat luzatzen laguntzen digute Etxeberriko festek. Bizilagun batzuk oraindik oporretan daude, haurrek eskola hasi berri dute...

E.T.: Motibazio handia izaten dugu, lehenik, Etxeberriko festa direlako eta, ondoren, Sanmielak.

Berrikuntzak txertatu dituzue egitarauan...

E.T.: Zaila izan arren, egitaraua pixka bat berritzen ahalegindu gara.

E.C.: Gainera, jende berria batu zaigu elkartera, bost bat edo, auzora bizitzera etorri berri den jende gaztea.

E.T.: Ostiralean, zezen mekanikoa izango dugu. Larunbatean, berriz, familia-lasterketa egingo dugu, edonorentzat zuzenduta. Etxeberri plazan ekingo diogu eta auzo berria zeharkatuko dugu, Langarda hasierako biribilgune berriraino. Ondoren Idiazabal kalean barrena, berriro ere Etxeberrira jaitsiko gara.

E.C.: Espaloitik egingo dugu, nor bere erritmoan. Era berean, urtero bezala, Super H-ko lagunak izango dira gurekin. Beharbada lotura izango du lasterketarekin.

E.T.: Mozorrotuta ere etor daiteke jendea!

E.C.: Frutarekin batera, detailtxoren bat edo beste banatuko dugu, parte hartu dutenentzat.

E.T.: Kirol-jolasak ere izango dira, larunbatean, nerabeei begira.

E.C.: Adin-tarte horrentzat ere zerbait eskaini nahi genuen.

E.T.: Azkenik, larunbateko afariari begira, urdaiazpiko-ebakitzailea izango dugu, Mimendikoekin.

Bestela, nolakoa izango da aurtengo jaien asteburua?

E.C.: Ostiralean, txupinazoaren zein zezen mekanikoaren ondoren, Komerik erromeria izango dugu. Urnietarrak ditu taldeak. Poxta Zaharrekoek lagundu zигuten hitzordua lotzen, zaila egiten baitzitzaigun gure aurrekontuarekin taldeak aurkitzea. Jende gaztea erakarri nahi dugu horrela.

Larunbatean, beti bezala, Txanbolinen dianarekin hasiko dugu

SALGAI DAUDE BAZKARIKO TXARTELAK BIAK KAFETEGIAN ETA CELTICS TABERNAN

eguna. Jarraian, lasterketa eta Super H-ren postua zein jokoak izango ditugu. Aurtengo herribazkaria, Euskal Parrillarekin egingo dugu. Esan bezala, salgai daude, txartelak, Biak kafetegian eta Celtics tabernan.

E.T.: Bingoa izango dugu bazkalostean, gure festetan hutsik egin ezin duen hitzordua. Aparente egongo da ondoren, DJ Flowing-ekin batera. Hala, kirol-jolasen ostean, jendea herriafarira gelditzera gonbidatu nahi dugu jendea. Ez da beharrezkoa urdaiazpikoarekin afaltzea, baina anima daitezela! Lan handia egiten dugu urte osoan, eta egiten ditugun ekintzek babesa behar dute.

E.C.: Gainera, aurreko urtean baino aurrekontu txikiagoa daukagu orain. Are arrazoi handiagoa jendearen babesa izateko. Finean, ez da guretzat lortutako dirua, herriari begirako ekintzak antolatzen jarraitzeko da.

E.T.: Igandean, txirrista irris-takorra jarriko dugu, hortaz, etor dadila jendea bere bainujantziarekin eta flotagailuarekin. Bukatzeko, Zirko Txosko izango da, Urnietako Udalak antolatuta.

Zein da festetako zure hitzordurik kuttunena?

E.C.: Elkarteko kideak batu, oholtzara igo eta Alaskaren "A quien le importa" abesten dugunean, larunbat gauean. Nor bere gisara dabil, nekatuta, baina, elkartu eta besarkada handia ematen dugu denok batera.

E.T.: Bai, niretzat ere, egin dugun lana ospatzeko momentua da. Oso berezia da.

Ohikoa baino mugimendu handiagoa nabari al duzue plazan festek irauten duten egunetan?

E.C.: Festetara jende mordoxxa etorri ohi dela nabari dugu. Toki ona da, eroso, plaza handia delako. Hala ere, urte osoan antolatzen ditugun beste gauzetara, ez horrenbeste.

Hasi da atzera kontaketa... Prest al zaudete txupinazoa botatzeko?

E.T.: Gogo handiarekin gabiltza, bai! Urnietako jendea animatu nahi dugu etortzera, baina, batez ere, auzoko bizilagunak. Azken horien falta sumatzen dugu, gehienbat. Jaitsi daitezela plazara, ikus dezatela egiten dugu lana. Oso gustura egoten da jendea gure festetan... Zabalik da gonbidapena!